



Kiribil Konpainiak aurkezten du:

MAITEDER

*2020-2021-eko Proiektua
haur ikuskizuna*



Sarrera:

COVID osasun krisiak eta lehen itxialdiak, askorentzat, galdera ugari sortu dituzte, eta gaurko beldurra eta egoera kezkarriari alternatiba bat eskaintzeko nahian piztu da sorkuntza berri hau: bidaiaren bidez.

Bidaia zer den ber-pasako dugu: fisikoa edo imajinarioa, forma anitzetako...

Bidaia, beti, itxaropen, askatasun, truke eta irekitasunaren eramailea izan da, eta gaurregun, guztiok bizi ditugun itxieren aurka doa (bereizten eta kontra jartzen gaituzten muga geografikoek eta kulturek).

Sorkuntza proiektu berri hau, bidaiaren inguruan partekatzeko gogoia baizik ez da.

Gaurregun, bidaiatzea korapilatsu bihurtzen da: gozatzen genuen askatasun hori moztua dago, eta horrekin batera beste nonbait eta bestea ezagutzeko askatasuna ere bai.

Baina BIDAIA MOTA ASKO daude, eta askotan ahazten duguna eta beti eskuragarri izango duguna, hauxe da: **Artearen eta irudimenaren bidez egindako bidaia fantastikoa.**

Idea sortu da eta Amaia Hennebutte, Konpainiako zuzendari artistikoak, eta Fabrice Jacob, Konpainiako artista berriak, gai honen inguruko sorkuntza artistikoa eramateko nahia eta asmoa izan dute.

Lan bilketa bat hasi da : erreferentzia literarioak, musikalak, artistikoak, dokumentalak eta poetikoak, batez ere Xabier LIZARDI euskal olerkariaren lanaren inguruan, gai horretatik gorago elikatu ahal izateko, ondoren inprobisazio lanak hasteko eta, azkenik, ikuskizunaren sorkuntza eraikitzeko.

Lankidetzaz:

Kiribilek euskaraz sortu eta euskal gizarte osoarengana jo nahi du, baita ere Euskal Diasporako haurrak, Argentinan batez ere, horregatik hegoaldeko bazkide artistiko batekin lan egin nahi du.

Balio berdinak partekatzen dituen Dejabu Panpin Laborategia konpainiarekin (**Erreterian** egoitza duena) denbora luzez lan egin nahian, bi konpainiek azkenean, bat egiten dute, 2019 eta 2020. urteetan, generoaren gaiaren inguruko azken sorkuntza elgarrekin sortuz: URMAELA.

Biziki emankorra izan den esperientzia berri nahi dute bi konpainiek.

Horretarako berriro **mugaz gaindiko koprodukzio** bat sortzen da hemen, eta **Ainara Gurrutxaga** izango da berriro **taula zuzendaria**.

Materialen, erreferentzien eta ohiko desioen inguruko lehen trukaketen ondoren, sormen egonaldiak 2021ko apiriletik goiti, inprobisazioen eta esplorazioen inguruan hasiko dira. Proiektuaren lehen haziak erein egingo dira orduan.

Aurkezpena:

« **MAITEDER** », **Xabier LIZARDIK** idatzitako « *Eusko-Bidaztiarena* » olerkian izendatutako maitalea da.

Poema honetan, Lizardik ezkonbidaia bat imajinatzen du: ezkonberriak : poeta eta hizkuntza, euskara, munduan zehar, munduaz harantzago ere, unibertsoan barrena, izarretaraino, doaz.

Horrela, Etxeparek (*Heuscara, / ialgi adi kanpora (...) Heuscara, / habil mundu guzira*), laurehun bat urte lehenago euskarari, mundura irten zedin, zuzendutako gonbidapena errepikatzen du Lizardik : helburua ez da, noski, euskara mundu osoan zehar zabal dadin, mundua euskarari sar dadin baizik.

Lizardiren bizitza eta lan literarioa BIDAIA oinarritzen da, eta idazleak hiru bidaia mota burutzen ditu: barrurantzko bidaia, ingururantzko bidaia eta urrutirantzko bidaia.

Ikuskizunak, BIDAIA gaia jorratzen du, eta Lizardiren moduan, hiru bidaia motak oinarri eta abiapuntuak izanen ditu: zer ote da bidaiatzea?

-BARRURANZKO bidaia (« *Biotzean min dut* », « *Ondar-gorri* », « *Etxeko kea* »... olerkiak), non bidaia bilakatzen den jaitsiera sakona, gizakiok, guztiok geure muin-muinean dugun eta nekez ezagut daitekeen eremu horretara.

Gaurregun, baliabide asko (pzikanalisiak, terapiak...) daude halako bidaia baten egiteko, artea, maiz ahazten dugun bide nagusi bat denean.

-INGURURANZKO bidaia (« *Bultzi lehiotik* », « *Oi, lur, oi, lur* » ... olerkiak), non bidaia bilakatzen den, Lizardi gisa, sinpleki gure ingurura irtetzea, gure ingurumarietan ibiltzea, eta orduan, ezaguna eta egunerokoa apreziatzea.

Gaurregun, bertakoa eta egunerokotasuna arnasten eta miresten erakasten da, meditazio eta « konzientzia bete-betean » ikastaroen bidez. Haur ttipiek berez duten gaitasun bat da ere.

-URRUTIRANZKO bidaia (« *Eusko- bidaztiarena* » olerkia, eta « *Alain Gerbault. Itxasozi bakartia* » idazlana): leku urrunetarantz egindako honetan, egiazko bidaia baten ohiko osagarriak aurkitzen ditugu: helburu edo jomuga bat, prestaketak eta abiatzea, paraje ezezagun eta ezohikotan barna jarraitutako ibilbidea, harreman berriak eta topaketak, eta, agian, itzulera.

Gaurregun, COVID krisiarengatik, debekatua bilakatu den bidaia mota da hau.

Azkenean, Ulises-ek egindako bidaia harrigarritik, euskaldunek egindako hego ameriketarainoko bidaia luzeetara, eta gaurregungo turistena bidaia murriztuak, edota debekuen gaindi bidaiatzen duten migranteek.... BIDAIAK BIDEAN jartzen gaitu, bide arruntetan, oztopoz betetako bideetan, barneko bideetan, ametsetako bideetan ere....

Euskarazko antzerki sorkuntza berri honek, formatu arin, autonomo eta ibiltaria izango du, edozoin toki, gela, karrika edo plaza xokoetan jokatzeko modukoa, Euskal herrian bertan, baina baita ere (erran gabe doa COVID krisiaren ondotik), munduan gaindi, ala nola Argentinan, hainbat euskaldun emigratu zuten lekuan...

Euskaraz izanki, edozoin hurrek eta helduk ikus dezaketen ikuskizuna izango da, 40 minutakoa, antzerkia, euskal kantua, txalaparta, baita musika berriak eta garaikidekoak nahasiko dituenak.

Lehen aldikotz, euskal diasporako hurrek proposamen artistikoaz gozatzen ahalko dute Euskal etxeetan, eta beren arbasoen bizipenen oihartzun bat jasoko dute.

"Buenos Aires"-eko auzo pobreetan: "La Boca", ikuskizuna eskainia izango da ere (beti euskaraz), bertako fundazio baten kolaborazioaren bitartez: « LA CASA RAFAEL »: « el poder transformante del Arte » garatzen duena.

Elkarte hunen lehendakariarekin harremanetan gaude, Christine PINTAT, Pau ondotik jatorria, eta elkar lan trukaketa polit bat aurreikusia da.

Hegoameriketara ibiliko den ikuskizun hau, mugaz bestaldeko sorkuntza izango da ere: Errenterian kokatua den Dejabu Panpin Laborategiko Ainara Gurrutxaga izanen baita obra hunen taula zuzendaria.


Bi artista oholtzan zuzenduko ditu : Amaia Hennebutte eta Fabrice Jacob, euskaldun berria.



ARG.: Auxtin Zamora

Asmoak eta gogoak:

- * EUSKARAZ, edonork uler dezaketena.
- * BIDAIA(K) abiapundu gisa, eta behar bada helmuga gisa ere ?
- * « clown » bidetik: ikuskizun umoretsua, alaia, poetikoa, musikala.
- * Aurre-ikusitako musika tresnak :
txalaparta (ttiki bat) / xirula / gitarra / gimbarda / bozak



Behin-behineko izenburua: MAITEDER

FORMATUA :

Ikuskizunak formatu bat izango du.

Hemen hellburua da, kanpoan, barnean, kalean, ikastetxe batean edo Euskal Etxe gela batean, azkenean edozoin tokitan, ikuskizuna jokatu ahal izatea, eta beraz, modu honetan, arrunt autonomoak izatea, bai alderdi teknikoan, baita ere publikoaren harreran.

Ondorioz, asmoa da publikoarekiko hurbiltasun handia izatea, eta espazio ttikian jokatzeko aukera izatea.

Formatu arina, autonomoa eta ibiltaria izango du sorkuntza hunek: « *bi maleta eskutan, besterik ez, egiazko bidaiariak bezala !* »

PUBLIKOA :

Ikuskizun hau, 5 urtetik goitiko haurrei zuzendua izanen da, baina publiko orokorrarendako balio izanen du ere, hain zuzen guztiei zuzendua izango baita.

IRAUPENA :

40 minutu aurre-ikusiak dira.

HIZKUNTZA :

Euskaraz.

LUZAPENAK :

Bi artistek, ikuskizunaren ondotik, “partekatze” une bat proposatuko die publikoari, laguntasunez bizitzeko, aipatzeko eta elkartzeko.

Preseski “bidaia” bera bizituko duten jendeak berriro elgar lotzeko.



Amaia Hennebutte, Ainar
Gurrutxaga, Charlotte Guilharretze.

Talde Artistikoa :

Idazketa eta taula zuzendaritza : Ainar Gurrutxaga (DEJABU konpainia)

Idazketa eta antzezlanak : Fabrice Jacob eta Amaia Hennebutte (KIRIBIL Konpainia)

Musika Konposaketa eta Musikaria: Fabrice Jacob

SORKUNTZAren EGUTEGIA:

2020-ko irailetik 2021-ko apirila arte: ikerketak, azterketak, irakurketak, elkarrizketak, trukaketak eta eztabaidak, antzezle eta taula zuzendarien artean.

2021-ko apirila: sorkuntza egonaldien hasiera, aste batez.

Kokapena: Errenterian, Niessen antzokian.

2021-ko ekaina: sorkuntza bigarren egonaldia aste batez.

Kokapena: Errenterian, Niessen antzokian.

2021-ko uda: sorkuntza hirugarren egonaldia, aste batez.

Kokapena: Larrekon (edo Larraldean), Senperen.

2021-ko iraila hastapena: azken sorkuntza egonaldia, aste batez.

Kokapena: Errenterian, Niessen antzokian.

2021-ko iraila: LEHEN IKUSKIZUNAK HEGOALDEAN, eta IPARRALDEAN.

Kokapena: Errenterian, Niessen antzokian, eta Larreko kulturgunean, Senperen.

2021-ko urria eta azaroa: IKUSKIZUNAK ARGENTINAKO Euskal Etxeetan, eta BUENOS AIRES-eko auzo pobreetan.

2021ko urte amaiera eta 2022ko urtea: IKUSKIZUNAK IPARRALDE eta HEGOALDEAN.



LEKUAK eta PARTAIDEAK:

Aurreikusitako koprodukzioa :

- Dejabu Panpin Laborategia Konpainia
- Errenteria, Niessen Antzokia
- Errenteriako Udal Kultura Zerbitzua eta herriko eskolak
- Euskal Kultur Erakundea
- Eusko Ikaskuntza
- Senpere, Larreko Kulturgunea
- Euskal Hirigunea
- Hameka, Luhuson
- 64 Departamendu Kontseilua



Hedapenaren ikuspegiak eta lankidetzak:

- Errenteria Udala eta eskolak - Errenteria
- Mendi Zolan Kultur zentroa - Hendaia
- Mauleko Kultur Zerbitzua - Maule
- Iparraldeko eta lurraldeko eskolak- Euskal herria
- Argentinako Euskal Etxeak – Argentina
- Argentinako Boca Auzoa –Buenos Aires



Kiribil Konpainia

Kiribil konpainiaren xedea, eskaintza artistiko eta kulturaletik urrun eta isolatuta dauden ikusleei heltzea da, eta haien bizitokietara joatea, ikusle horiek, ikusle izatetik sortzaile izatera bultzatuz.

Izan daitezke ume ttiki-ttikiak (6 hilabetetik goiti) haurtzaindegietan, adinekoak zahar-etxeetan, gerrako errefuxiatuak, gaixotasunak dituzten pertsonak zentro mediko-sozialetan (Alzheimer gaixotasuna, eskizofrenia, autismoa).

Konpainiaren sorkuntzek guztion sortzaile arima esnatu nahi dute, eta une artistiko baten inguruan, parentesia poetikoa eskaini nahi dute.

Konpainiaren jatorria euskal kultura eta hizkuntza da, kideen nortasunaren oinarri bateratzailea denean.

Bere euskal sustraiak baliatuz, sentikorrarekiko eta besteekiko irekitasunaren ikuspegi garaikidearen parte da.

Bere lehen ikuskizuna: "Orobil Borobil" haurtzaindegietan ñiñiendako jokatu zuen, eta publiko berezi honekin bat egiteko aukera eman zion.

"Baiu" bigarren sorkuntza (Amaiaren "Lapiñu" albumatik inspiratua) haurtxoentzako ere egokitu zen, eta haurtzaindegietan antzeztu zen.

Hirugarren sorkuntzak: "iZ" (3 urtetik aurrera) mitoa modernotasunean inskribatzen du, eta espazioaz, denboraz eta hizkuntzaren jatorriaz hitz egiten du.

"NUNDIK" 6 hilabetetik aurrerakoentzako egokitzaipena sortu zen garaian, laugarren sorkuntza izan zen hau.

Bi sorkuntza hauek honako bazkideen laguntza izan zuten: Hego Euskal Herriko Hirigunea, Euskal Kultur Erakundea, Teatro Paraiso, Biarritz Culture, Hameka eta Maule hiria.

Bostgarren sorkuntza "SABLEak" oraindik ume txikiei zuzenduta dago, eta gaur egun haurtzaindegi eta antzokietan antzezten da.

Seigarren sorkuntza "URMAELA", haurrei zuzenduta dago (5-10 urte), eta gaur egun eskoletan eta antzokietan antzezten da.

MAITEDER, beraz, Kiribil konpainiaren zazpigarren sorkuntza proiektua da, beti haurrentzako.

ARTISTAK:



Amaia Hennebutte, kondalaria eta antzezlea.

Eskoletako andereñoa izana, gaur egun haur literaturan idazle-illustratzailea da, baita Kiribil konpainiako zuzendari artistikoa, kondalaria eta antzezlea ere.

Mimoa, pailazoa, antzerkia eta ahotsaren inguruko ikastaroen bidez formatzen da, besteak beste, Euskal Herrian, Bordalen eta Parisen, Yvan Bachiocci-ren Gorputz Mimo Eskolan, Samovarreko pailazoen eskolan eta Roy Hart eskolan.

KIMU saria irabazi zuen 2016an. Ondorioz sorkuntza eta haur eta gazte ikuskizun munduak hobekiago ezagutu, sakondu eta aberastu ahal izan zituen, diru laguntza bati esker formakuntzak jarraituz, baita ere Frantzian zehar, haur ikuskizun espezializatutako jaialdietan bertaratuz.

Bide artistikoen erdigunean, denen sentsibilitatea pizteko ikuskizunak sortu eta antzeztu nahi ditu.

Azkenean, Kiribil, "filtro gabeko" ikusleetara ekarri du: ñiñiak, ume oso ttikiak, adinekoak eta / edo gaixoak, gerrako errefuxiatuak ...

Idazle-illustratzailea da ere, eta hamaikagarren albuma argitaratu du 2018ko abenduan. Bere lan asko eszenatokietarako egokituak izan dira: hala nola "Otso", "Théâtre des Chimères"-ek 2013an antzeztua, "Lodikroko" 2007an Elirale konpainiak egokituta (2016an berriro hasi zen), baita ere "Himalaya" 2012. urtean. Bere liburuak eta albumak GATUZAIN, IKAS eta ZTK-k argitaratu dituzte.

Azkenean, Donostian dagoen GALTZAGORRIko lehendakaria da ere, 29 urte baino gehiago daraman elkarteak, Euskal Herri osoko haur literatura euskaraz sustatzeko eta garatzeko ezinbesteko erreferentzia bihurtu dena.



Fabrice JACOB, musikaria eta antzezlea.

Atzerriko hizkuntzak eta zibilizazioak Bordeleko III. unibertsitatean ikasketak egin ditu, eta behin lizentziatua, bidaiak dute bere bizitza gidatu, bestea eta beste Kulturak topatu eta ezagutu nahian.

Ingelesa, gaztelania, baina baita ere vietnamera, japoniera eta thailandiera ikasi zituen. Gauregun euskal kulturaz maiteminduta, euskara ikasten ari da.

Motxila bizkarrean, munduan gaindi ibili da, urrutiko kulturak eta zibilizazioak ezagutzuz, Asian bereziki, Mongoliatik Indonesiara (bidaiak 1997tik 1998ra eta 2001etik 2003ra), baita ere Hego Amerikan (2011. urtean 6 hilabetez) eta Afrikan.

Argazki zalea, bere bidaietako hainbat Argazki Erakusketa antolatu ditu.

Afrikako (mandingo) eta Indiako (tablak) perkusio tradizioetan trebatua da, eta gitarrista da ere.

Arte Martzialetan aditua da, 20 urtez praktikatu ondoan, irakaslea bihurtu zen, eta bere lana sakondu zuen autodefentsa eta Txinako barne formak ere landuz.

Beti nahi izan ditu Bidaiak eta Artea elgar lotu, formakuntzak eta partekatzea ... Kiribilekin izan duen topaketa eta MAITEDER sorkuntza proiektua, bere xede eta gogoen konkretizazioa da.



Ainara GURRUTXAGA, taula zuzendaria.

Ainara Gurrutxaga Dejabu antzerki konpainiako zuzendarietako bat da. Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Komunikazio, Semiotika eta Hizkuntzan masterduna Euskal Herriko Unibertsitatean.

2005-2007 urteen artean Arte Dramatikoan graduatu zen Londoneko London International School of performing Arts (LISPA) eskolan. Frantziako Phillipe Genty eta Inglaterrako Complicité konpainiarekin osatu du antzerki formakuntza.

Gaur egun antzerki idazle, zuzendari eta antzezle gisa egiten du lan.

2001. urtean, Urko Redondorekin Dejabu konpainia sortu zuenetik, ordutik arrakasta handiko antzezlanak sortu ditu, horien artean *Gizona ez da txoria* (2009, ACT jaialdia sormen berritzaileari lehen saria, Praga International Puppet Festivalen zuzendari onenaren saria, eta Subotica theatre festibalaren antzezpen onenari saria, besteen artean); *Errautsak* (2010ean Donostia Antzerki Saria), *Azken portua* (2011) *Gure bide galduak* (2011an Donostia Antzerki Saria), *Hamlet* (2013), *Arrastoak* (2014ean Donostia Antzerki Saria), *Francoren bilobari gutuna* (2016) eta *Linbo planeta* (2018).

Gaur egun *Zaldi Urdina* antzezlanaren sormenean murgilduta dago, Artedrama eta Axut konpainiekin batera.

Konpainiaren antzezlan gehienak argitaratuak izan dira.

Kolaborazio ugari egin ditu azken urteetan beste hainbat konpainiekin, dela Limbik konpainia ingelesarekin, dela Le Petit théâtre de Pain, Artedrama, Anakrusa Antzerkiola Imaginarioa, Tanttaka, Metrokoadroka, Ttak, Gar eta Rouge Elea konpainia euskaldunekin.

Antzezle gisa besteen artean *Amaren eskuak* (Mireia Gabilondo, 2012) eta *Belarra* (Koldo Almandoz, 2009) ikusentzunezkoetan parte hartu du eta gaur egun Harkaitz Cano idazlea eta Amorante musikariarekin Anne Sextonen lanean oinarritutako *Ene Maite Kuttun guztiak* ikuskizunean ere aritu da.

HARREMANA

Kiribil

Zuzendaritza artistikoa
Amaia Hennebutte
amaia@kiribil.net
33 (0)6 72 62 08 14

Ekoizpena- Hedapena
Camille Luthereau
prodkiribil@gmail.com
33 (0)6 60 09 56 78



SIRET : 75 13 40 084 000 19 - APE : 900 1 Z - N° Association : W641004579
Licence 2 : N° 2-1081992 - Licence 3 : 3-1081993
KIRIBIL Konpainia, LARREKO Kulturgunea, 2 Xan Ithourria plaza, 64310 Senpere.

www.kiribil.net